

Arene Martin Goikoetxea

B maila • 2 saria

Arene Martin Goikoetxea Zegaman jaio zen 2006ko abenduaren 30ean. Aitxuri Herri Eskolan ikasi zuen arren, gaur egun Txindoki Beasain BHI institutuan dabil.



ORTZADARRAREN SUTONDOAN

2011ko ekainaren 20an jaso nuen albisteak nire bularra zeharkatu zuen gerratik ihes eginiko bala baten antzera. Egun arrunt horietako bat zirudien, ezberdintzen zuen gauza bakarra medikuarekin kontsultan egote hori zen. 8 urte bete nituela eta, medikuek urtero bezala erradiografia bat egin zidaten, dena ondo zihoan ziurtatzeko. Baina oraingo honetan, bata zuriaren plakan "Ioritze" izena idatzirik zuen medikuaren irriak behera egin zuen. Mediku bata zuridunak nire gurasoak gela batera eraman zituen eta begietara begira, bihotz aldean arazo bat nuela bota zien hotz-hotz. Berria eman bezain laster, medikuz betetako gela batera sartu zen eta mediku guztiak nire erradiografiari begira geratu ziren. Ni, berriz, gortinen atzealdean gelditu nintzen, amonak oparitutako soineko loreduna janzen.

Gaizki zegoen zerbaiten itzala nabari zen ene bular-aldean, nire esperoan zegoen munstro baten itzala. 10 minutura itzuli zen medikua gurasoekin nengoen ortzadar koloreko gelara. Eskuetatik heldurik esan zidan: "Bihotzean munstro bat duzu, baina biok batera garaituko dugu, ados?". Munstro bat? Buruarekin baiezkoa adierazi nuen, mediku bata zuriak esandako hitzak ulertu ere egin gabe. Ortzadar gela alaitik, medikuen tramankuluz betetako batera eraman ninduten herren zegoen aulki batean eserita nengoela, medikuek egin behar zizkidaten frogak azaldu zizkidaten. Egia esan, ez nintzen ari arreta jartzen, baizik eta "bihotzeko minbizia" nuela zioen fitxategiari begira nengoen. Horrek ezin zuen neurea izan, bata zurien ikerketan okerren batek behar zuen izan. Oso txikia izan arren, gustatuko litzaidakeena baino gehiago nekien hitz gogor horiei buruz; izan ere, gure aitona munstro honek eraman zuen etxeko sutondotik, ipuin eta elezaharrak betiko isilaraziz.

Medikuek berehala, ziztu bizian Donostiako ospitalera eraman ninduten. Nork esango ote zion neskatala alai hari lagun bakar sutondoko aitonaren oroitzapenak eta botikak izango zituela...

Bertan hasi nuen borroka. Askotan galdetu nion neure buruari: "Zergatik ni?", baina ez nuen beste erremediorik izan bizitzeko gogora indartsu heltzea baino. Galderak buruan gaztainak danbolinean antzera biraka zebiltzan eran, esperantzak eskuetatik ihes egiten zidala sentitzen nuen. Bizirik nengoela mirari bat zela esan zidaten arren, ni neu hilda sentitzen nintzen. Ez nintzan ni neu aurkitzen. Lehengoa izan nahi nuen; lehengo eroa. Zorioarenmendeko txotxongilo ikusten nuen nire burua, infernuan galdurik. Suhara zuen izena ene infernukideak.

Borrokalari bizia zen. 8 urte besterik ez zituen, ni bezala. 2 zituenetik, birikak ito nahian dabil haren munstroa. Iluntasunaren izpi famatu hori ulertarazi zidan, munstroa ere ahaztarazi genion elkarri. Nola ahaztu ezkutatzeketan jolasten genueneko neguko gau hotz haiek edo Fernando doktore sudur zorrotzaren bulegoan "graffiti" zoro haiek marraztu genituenekoak... Oraindik gogoan dut kimioterapia gelatik ateratzen nintzen bakoitzean, kolorez margotutako ortzadar bat ematen zidala. Maleta guztia haiez bete nuen, eta oraindik ez zitzaidan munstroa desagertu.

Martxo euritsuaren ostean, udaberriarekin batera hasi nuen tratamendu berri hura. Zelaietan loreak hazi ziren arren, neure zelaikoak galduak nituen nik. Bai. Ilea jauzi zitzaidan. Ezin nuen ispiluan begirada jarri ere egin, ezberdina sentitzea ez nuen gustuko. Suharak bai zortea, inoiz ez baitzituen bere zelaiko loreak galdu. Gogoan dut, gau hartan negarrez ikustean besarkada batez dena ongi aterako zela zin egin zidala. Hurrengo egunean Suhara ikustean ia bihotzeko batek eman zidan. Ilea moztu zuen! Begiak igurtzi nituen, behin eta berriz. Baina bai, hala zen.

Uda iristearekin batera, herriko igerilekua haurrez beterik joan zen eran, nire maleta ortzadarrez bete zen munstroa geldiarazteko sendagaiaren berri izan gabe.

Egutegian abuztua hormako txintxetan galdu zen eta nik neuk ere esperantza galdu nuen. Nire infernukideak ezinezko irribarreak atera zizkidan udako gau bero haien itzalean. Eskutik harturik sudur zorrotzaren bulegora eraman ninduen eta milaka ortzadar margoturik ageri ziren orriak haren horma ilunetan zintzilikatu genituen gau haiei zentzua emanaz. Bat-batean oin hotsak entzun genituen. Zalantzarik gabe doktorearenak. Ezinezkoa zen haren zapata luzeen hotsa ez ezagutzea. Infernukideari begirada beldurri bat bota nion eskuekin leihoaren ondoan zegoen armairua seinalatuz. Bertan ezkutatu ginen ortzadar marrazki guztiekin. Fernando bulegora sartu zen betiko aurpegi serioarekin gaixo batentzat botika baten bila. Armairua doktorearen jantziz beteta zegoen. Halako batean Suharak haren bata hartu zuen eta sudurluzea imitatzen hasi zen. Ezin barreari eutsi eskuak ahoa estaltzen jarri behar izan nituen. Doktoreak botika hartu, eta bulegotik irten zen. Eskuak ahotik kendu eta barrezka hasi ginen. Armairutik irten, marrazkiak berriz horma ilunean itsatsi eta gelara itzuli ginen. Iristean bertan aurkitu genuen Fernando doktorea nire gurasoekin. Argi nuen. Harrapatu egin gintuela espero nuenean sudur zorrotzak berria iragarri zuen sutondorik gabe: bihotz berri bat behar nuen, nireak lau hilabete baino ez baitzuen iraungo. Begiradarekin batera esperantza faltan zegoen sutondoan erre zitzaidan.

Leihotik begira ospitale pareko zelaien hostoak erortzen ikusi nituen. Egutegira begiratu nuen eta urria zela ohartu nintzen. Hilabete bat pasatu zen bihotz berria behar nuela esan zidatenetik eta zirudien ez zegoen munstro gabeko bihotzik niretzat. Gaueroko amets gaiztoak egia bilakaturik, Suharen munstroak ez zuen amore emateko asmorik. Ni oso gaizki egon arren, benetan Suharak kezkatzen ninduen. Honezkero ez zuen ia indarrik ortzadarrak margotzeko kimio gelatik irteten nintzen bakoitzeko.

Gure beldurrak egia bilakatuz, abendua iritsi zen. Egutegiko egunen kontra bizitzeko aukeraren bila, ni. Betidanik Gabonak izan ziren nire urteko garai gustukoenak aitonaarekin sutondoan egoteko. Baina ez nuen ez aitona, ez sutondorik. Horiek ez ziren Gabonak. Baina hala ere ene infernukideak eta nik Gabon haiek azkenak izango balira bezala igaro nahi genituen, agian geuretzat azkenak izan baitzitezkeela esaten baitzion biriketako itolarriak.

Gabonetako txokolatezko egutegian 3 txokolatina besterik ez genituen jan eta, Suhara ondoko

gelara aldatu zuten. Gure hitzik gabeko malkoen solasaldian, kezka bakarra buruan: ez nekien berriz ikusiko nuen, gela hartara sartzen zituztenak ez zirelako inoiz gehiago itzultzen, eta nik ez nuen Suhara galdu nahi. Hurrengo egunean, Suhararen gelara joan nintzen bera ikustera, azken batean hurrengo egunean nire urtebetetzea zen eta nire bihotz eria alaitzen zidan Suhararekin poztasuna partekatzeak. Irribarre batez malko bakar bat oparitu zidan, uneko isiltasunak gela zuria zeharkatzen zuela gorputzari loturik zituen makinen hotsa ere mututu egin zuen. Ez nekien zer ari zen gertatzen.

Suhara nire gelara etortzeko zain egon nintzen arratsalde osoz; atearen maratila grisa mugituz ate zuriak gela hotzean pitzadura bat sortzen zuen bakoitzean, ateari gogoz begiratzen geratzen nintzaion. Baina Suhara ez zen etorri eta niri zerbait apurtu zitzaidan bihotzean, eta ziur nengoen ez zela munstro madarikatua izan. Iluntzean, etorriko ez zela sumatzean, bere gelara joatea erabaki nuen. Iristean, Suhararen izaren gainean gutun bat ageri zen; koloretsu, errotugailuz, ortzadarren koloretan “Zorionak” jartzen zuen gutuna ikustean, malko bat isuri zuten ene begiek zoruko harlauza grisak urdinduz. Egia esan, ez nuen hori espero; ez Suhararengandik. Haren zain izan ninduen, izara zuriak lagun baino ez nituela.

Hurrengo egunean, erizainak leihoetako gortinak irekitzean, eguneko argiak min eman zidan begietan. Bisita jaso nuen. Baina ez zen Suhararena izan, haren gurasoena baizik. Malkotan blai zetozen aita-amak. Suhara ortzadarrez betetako mundu zoragarri batera joan zela esan zidaten, baina beraien malkoetan egia irakur nezakeen: Munstroaren aurkako borroka galdu zuen nire lagunak. Amak eskua laztanduz eta malkoak zapi batekin lehortuz gutun koloretsu bat utzi zuen nire eskuetan.

“Mila esker, Arenne. Mila, mila esker ezinezkoa zirudienean irribarre bat ateratzeagatik nire minean. Mila esker, benetan. Ni inoiz ez ahazteko, nire zatitxo bat betiko zurekin egotea gustatuko litzaidake. Nik borroka galdu arren, zurea irabazten lagunduko dizun nire bihotza eman nahi dizut. Izugarri maite zaitut!

Ortzadarren munduan izango nauzu zain, baina ez presarik izan!

Bihotz bihotzez, Suhara.”

Gaur, sutondoaren gela beroan malko baten antza hartu diot leihoan behera datorren euri tantari. Bada astebete, Suhararen besarkaden berotasuna faltan botatzen dudala. Ez dakit non dagoen; ortzadarren mundu zoragarrian, zerua deritzoten goialdean, edo auskalo, baina nik egunero irakurtzen dizkiot gure bi gutunak. Gure bihotzetik ortzadar koloreak marrazten dizkiot. Dagoen lekuan dagoela, begietan behera isurtzen ari zaidan malkoan Suhara ikusten dut irribarrez.

Zaila da maite duzun horrek sortzen duen hutsunearekin bizitzea. Zaila da munstroen munduan zu gabe bizitzea. Mila esker zure taupadak gure egiteagatik. Mila esker gure bihotza gure ortzadar bilakatzeagatik munstroen aurka. Munstroak bihotzean badaude ere, maite duzun hori galdu arren, maitasunak bertan dirau.